

TXIKITTO



*koko jantziarekin
kalera*

● Arrateko Andra Mari eskolan urte berria hasi dugu eta honekin lan berriak datoz. Laster izango ditugu zinea, pianojolea, San Andres eskolako kideak bisitatuko ditugu euren antzerki emanaldia ikusteko, ipuin kontalaria eta aratosteak, San Blas eta Santa Ageda. Guzti hau prestatzen dihardugu eta hurrengo alean horien berri emango dizuegu. Bitartean, xakean ari dira eskolako 3. eta 4. mailakoak, denak dantzan ikasi, mozo-erroak antolatu eta abestiak eta opilak ere inguruan, hau nahaste berrastea aurtengo!



● 2 eta 3 urteko umeek datorren ikasturteari begira matrikula emateko epea otsailean zabalduko da. Horrela, hori egin aurretik gurasoek behar duten informazioa jasotzeko, eskuliburu bat banatuko da ikastetxeetan informazio hori eskuratu nahi dutenek jaso dezaten. Ekimen hau iaz egin zen lehenengo aldiz eta, aurtengo ere, gurasoei euren haurrak matrikulatu baino lehenago behar duten laguntza hori eskaintzea da helburua.

● La Salle Isasikoek urte berri onarengaitik zoriontzen zaituzte denori eta baita telebistan abestu zenituzten gabon kantengaitik! Albisteen kontuan, La Salle Isasiko 6. mailako gela bat Aubixara joan zen astea pasatzera. Irteera honen helburuak euskara indartzea eta harremanak sendotzea dira. 3. 4. 5. eta 6. mailakoak pozarren daude jolastokian leku gehiago dutelako.

RRIAK · BERRIAK · BERRIAK · BERRIAK ·

● Zapatuetako tailerrak antolatu dira otsaila eta martxorako, horrela, jaiegunetan aspertzeko aukerarik ez da egongo. Tailer guztiak otsailaren 9an hasi eta martxoaren 15ean bukatuko dira, eta ordutegiak zehaztuta ez badaude ere, zapatu arratsaldetan izango dira.

Haur Hezkuntzako 3. mailakoek eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako umeei antzerki tailerrean parte hartzeko aukera izango dute. Euren gurasoekin hartuko dute parte tailer honetan Errekatxuko dantza aretoan.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoek, bestalde, dantza ikastaroa jasoko dute Kezkaren egoitzan. Esan behar da, ume hauek urte osoan jasoko dituztela dantza ikastaro hauek.



5. eta 6. mailakoek, bukatzeko, zientzia esperimentuak egiteko aukera izango dute eta Portaleko 3. pisuan egingo dira. Esan bezala, zapatuetan ondo pasatzeko aukera ezin hobea!

● Azken hilabetea gelditu gabe pasatu dute **Aldatzekoek**. Abenduaren 19 eta 20an GABONETAKO JAIALDIA egin zuten 2 urtetik 2. mailarainoko umeei. Eta 20an, gainera, Olentzerok Haur Hezkuntzakoei bisita egin zien. Hurrengo egunean, bestetik, 4. mailatik Batxilergorainokoek meza izan zuten San Andres elizan.

Urtarrilaren 9 eta 10ean 'Droga menpekotasuna eta ohitura osasungarriak' izeneko ikastaroak jaso zituzten Lehen Hezkuntzako 6. mailatik Batxilergorainokoek. Beste alde batetik, urtarrilaren 23an, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek 'Anorexia-Bulimia'-ri buruzko hitzaldiak jaso zituzten, eta arratsaldeetan euren gurasoekin hartu zituzten hitzaldi horiek.

00 Eibar. Tel: 943 206776. **ERREDAKZIO KONTSEILUA:** Maider Aranberri, **BOA:** Marisol Uriarte. **ERREDAKZIOA, MAKETAZIOA ETA BANAKE-** **!** aldizkariko argazki artxiboa, Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena. **AZALEKO** **oop.** (Oñati). **COPYRIGHT-A:** Txikitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS-1111/96

Eibarko Udalak
diruz lagundutako aldizkaria



zu margolari




**LASTER DIRA AURTENGO
ARATOSTEAK. AUKERATU AL DUZUE
KOKO JANTZIA? BITARTEAN
KOLOREA EMAN MARRAZKIARI!**

Asmatu :


- ① Udalekuera dagoen tokia : _____
- ② Eibarko futbol zelai : _____
- ③ Eibarko parroia : _____
- ④ Eibarko taldearen koloreak : _____

Elena Torrella

Zuzi Astudintasunak idone-Eliza



DENBORAPASAK



Balatu bederatzi: eskolako ardena berrik:

ANGELA Linarés

P	I	N	A	T	E	M	A	T	I	C	A	S
L	E	N	G	U	H	S	E	d	ñ	W	J	7
A	M	C	G	I	M	N	H	S	I	H	X	H
S	P	J	7	U	E	U	S	k	e	R	H	U
T	A	M	I	K	R	E	z	T	N	A	C	P
I	P	S	N	O	L	U	K	q	O	z	V	L
K	S	T	G	H	I	T	N	T	N	S	H	O
A	A	L	L	E	J	Q	G	E	I	N	E	C
T	L	S	E	X	I	r	z	d	E	G	I	O
M	A	A	S	C	O	N	I	U	W	7	X	z



Margotu pintzen duen koloreekin, zenbatzen arabera:

- 1 Beltza
- 2 Rosa
- 3urdina
- 4 haragi kolorea
- 5 txuria



Sandra Moradillo

- 1 Gonia
- 2 Horia
- 3 Beltza
- 4urdina



Imanol Martinez

AKATSAK ZUZENTZEN

ZENBAT BIDER ESAN OTE DUTE
MAISU ETA ANDEREÑOEK
AKATSAK ERREPIKATZEN
DIRELA! ORAINGOAN ZENBAT
DAKIZUEN ERAKUSTEKO AUKERA
IZANGO DUZUE ETA, GAINERA,
SARI BAT JASO DEZAKEZUE.
ESALDI HAUETAKO BI TXARTO
DAUDE. PARTE HARTU
LEHIAKETAN ETA, ASMATUZ
GERO, SARIA IRABAZI
DEZAKEZUE!

HILABETEKO IRABAZLEA



ENEKO ERRASTI



- Futbolean ondo jolasten dut.
- Ez dut nahi ikastolara joan.
- Goizero kapela janzten dut.
- 6.mailan asko ikasten ari gara.
- Bihar ikusiko gara.
- Donostian bizi gara.
- Zer da, txoria ala katua?
- Txiribuelta egiteko kokoriko posizioan jarri behar da.

Izena:

Telefono zenbakia:

ayerbe

liburudenda
zezenbide 9

Neska batek bere mutilagunarekin harremana apurtzen du. Horrela, amarengana doa eta zera esaten dio:

-Ama, esan diot ez dudala gehiago ikusi nahi.

Eta amak erantzuten dio:

-Eta berak zer egin du?

-Argia itzali.

Maite Ortega

Euskara ikasten:

-Ea Txomin, nola esaten da 'puerta' euskeraz?

-Atea.

-Oso ongi! Eta 'puerto'?

-Ateo.

Maria Dominguez



Bazen ume bat hain zatarra zena, jaio zenean sendagileak bere amari zera esan ziola:

-Emakume, airera botako dugu eta hegan egiten badu saguzarra izango da.

Sheila Pato

-Jaimito, zenbat dira bi gehi bi?

-Auskalo! Ez badidazu datu gehiago ematen...

Joseba Ruiz



Egun batean lapur bat Aitorren etxean sartzen da lapurtzera.

Orduan, Aitor ohetik jaiki eta hor ikusten du lapurrak, beraz, azken honek esaten dio:

-Dirua nahi dut!

Orduan, Aitorrek zera erantzuten dio:

-Oso ideia ona! Itxaron, argia piztu eta orain lagunduko dizut!

Farah E.

-Sendagile jauna, nola dago bost euro irentsi dituen umea?

-Gaizki, kanbio gabe jarraiotzen du oraindik.

Sheila Pato

Patxiku bere ikaskide batekin:

-Alazne, zu non jaio zinen?

-Ni gurasoen etxean. Eta zu?

-Ni ospitalean.

Zer dela eta? Gaixorik zeunden ala?

Marina Estevez



Zein da Mojamet-en etsaia?
Sekamet.

Mikel Elizondo

Aita-semeak kalean daude eta
aitak esaten dio semeari:

-Begira, Mikel, ikusten al duzu
gizon hori?

-Bai.

-Bada, begira, gizon hori
Ameriketara alpagata batekin
joan zen eta 80 milioirekin etorri
zen.

-Eta zer egin behar du orain hain-
beste alpagatarekin?

Asier de los Toyos

-Etxekoandrea etxean al dago?

-Ez, ez dago etxean.

-Eta noiz etorriko da?

-Itxaron, orain galdetuko diot-eta.

Ivan Palacios

Bi mexikar elkartzen dira:

-Ale manito! Nola duzu izena?

-Pepe Gaileta.

Orduan besteak pistola hartu eta
pummm!

-Hemendik aurrera Pepe Roskila
izango zara.

Jon Ander Urkiola



-Nola asmatzen duzu abere hauen
adina?

-Adarretan, jauna.

-Orduan, behi guztiek dituzte urte
bi, ezta?

Mikel Perez

Aitak semeari:

-George Washingtonek zure adina zuenean bere gelako jakintsuena zen.

-Bai, eta zure adina zuenean Estatu Batuetako presidentea.

Ander Telleria

Jon ikuilura doa eta bere aita behiak jaizten ikusi ostean esaten dio:

-Aitatxo, behi txuri-beltzak kafesnea ematen du?

Geneba Barrio



Gizon bat farmazian sartu eta galdetzen du:

-Badaukazue azido azetilsalizilikoa?

-Aspirina esan nahi duzu, ezta?

-Ah!! Kontxo!! Izena ahaztuta neukan.

Irene Garrido

Zer esaten dio espageti batek beste espageti bati?

-Nire gorputzak saltsa nahi du!

Daniel Patino

Zein da pailazoaren kolmoa?
Koloretako puzkarrak botatzea.

Ander Arrieta

Erroma


Orain dela asko, Cesar izeneko gizon bat bizi zen Erroman.

Egun batean,

Cesar Koliseora joan zen bere aitarekin (Cayo Octavio) eta amarekin (Atia Balba Cesonia) musika klasikoa entzutera. Bapatean Koliseoa apurtu egin zen eta bertan zeuden guztiak kanpora irten ziren. Orduan, Cesar etxera joan zen bere aita eta amarekin.

Hurrengo egunean Cesarren aita eta ama Koliseora joan ziren hau konpontzera. Eguerdia heldu zen eta Cesarren gurasoak Koliseoa konpontzen saiatu baziren

ere, hau behin eta berriz apurtzen zen. Ondoren, Cesar esnatu zen eta bera bakarrik Koliseoa konpontzen saiatu zen, baina alferrik. Eta gauean ere, Cesar lokartu zenean,



gurasoak eta beste bost enperadore Koliseoa konpontzera joan ziren, baina jausi egiten zitzaien.

Hurrengo goizean Cesar hil egin zen eta hori jakin zuen lehena bere ama izan zen.

Azkenean, esfortzu handi bat egin zuten eta hiritar guztiak joan ziren Koliseoa konpontzera. Lortu zuten



konpontzea, eta gainera, teilatutako berri bat ipini zioten euria egiten zuenean barrura euririk ez sartzeko.

Horrela, denak piska bat triste sentitzen ziren Cesar hil zelako, baina oso pozik Koliseoa konpondu zutelako.

Aitzol Albajara

TXIKI HOROSKOPOA

ARIES



Ez dugu eskatu beste opari jaso gabonetan? Egia esan, Olentzero urte osoa dago begira, ez soilik abenduko azken egunak. Beraz, hobe duzu urte hasieratik ondo portatzen hastea, opari gehiago jaso nahi baduzu.



TAURUS

Urte berria gogo handiarekin hasi duzu. Ea horrela jarraitzen duzun, 2008ak egun bat gehiago baitu. Garrantzitsuena da urtea hasi duzun bezain alai amaitzea, eta izarrek diotenez, horretarako aukera izango duzu.



GEMINIS

Gabonak alde batera laga eta fratosteak datoz orain. Beti jai giroan dagoen herria da Eibar, badakizu! Pentsatu duzu nola koko jantziko zaren? Pentsatu piska bat eta originala izaten saiatu zaitetz!



CANCER

Olentzero, erregeak... zuk edozein lekutatik jasotzen dituzu opariak, ez zara batere tontoa! Hala ere, jasotako dena merezi izan duzu, oso jarrera ona izan baituzu urte osoan zehar.

LEO



Urte berri bat hasi da, eta honekin, abentura pila bat gehiago! Oso irudimen handiko pertsona zara, horrela, begiak itxi eta esna amestu! Zuk pentsatutako edozein lekutara joan zaitetzke zure buruak horrela nahi badu!



VIRGO

Badakit koko jantzea ez duzula oso gustoko, baina beti bezala bikain pasatuko duzu aurten ere fratosteetan! Hartu koko jantzi eroso bat, gustokuen duzuna, eta presta zaitetz egun alaiak bizitzeko!

TXIKIHOROSKOPOA



Gabonak erdi gaixorik pasa badituzu egon lasai, 2008 osasuntsu bat izango baituzu. Beti ezin zara ondo egon, eta momentu txarrean gaixotu bazinen ere, urte osoa forma onean pasatuko duzu. Zurea bai sasoi!



2008an gauza bat gehiago egiten saiatu behar zara: irakurri. Jakina da zuk ez duzula oso atsegin. Horrela, aukeratu titulu erakargarri bat eta gauean, lo egin aurretik, irakurtzeko ohitura hartu.



Kirol urtea izango da zuretzat 2008a. Edozein kirol mota egitera animatuko zara, baita arriskutsuenak ere. Beraz, kontu handiarekin ibili, bestela ezbeharren bat gertatuko zaizu!



Urte ederra duzu aurreatik. Beti izan dituzun ametsak betetzeko aukera izango duzu eta ezusteko politikak jasoko dituzu. Ez zaizu irribarrea ahotik kenduko momentu batean ere, beraz, aprobeitza ezazu!



Lagun berriak, barre momentu zoragarriak, ezusteko galantak... denetarik pasatuko zaizu aurten Acuaris maitea! Gauza oso onak gehienak, baina ez hain politikak ere. Badakizu, denetarik egon behar da!



2007a hobetzea zaila dela uste duzula? Ba 2008a ez da atzean geratuko, izarrek zure alde jarraituko baitute! Hala ere, ez egin amets gehiegi, azken finean, ametsak amets dira. Izan errealagoa!

WWW.TUDOTEKA.COM

Etxean dituzun jokoez aspertuta? Ondo pasatzeko beste era batzuk aurkitu nahi dituzu? Ba sarean badago zure nahiak asetzen dituen orrialde bat. Jolasteko zure izena eman beharko duzu, baina behin eman eta gero jokoen mundu zabal bat irekiko zaizu. Bakarrik edo munduko beste edozeinen aurka, mahai joko, taula joko, kartetan... duzun abilezia erakutsi ahal izango duzu. Gainera, denborarekin berritu egiten baitira eta beste berri batzuk izaten dira eskuragai. Kontu propioa izatea ahalbidetzen du, zure gauzak nahi dituzun moduan kudeatu ahal izateko. Horrez gain, posta elektronikorako kontua ere ematen dizu, internet bidez edozeinekin kontaktuan ipini, eta mezuak bidali eta jaso ahal izateko. Jolasen mundua zure eskuetan izango duzu!



WWW.EKARREKIN.ORG / WEB / MATEMATIKASAREAN

Matematikak gustoko badituzu edo hain gustoko ez badituzu baina gehiago landu behar dituzula uste baduzu, web orrialde honetan izango duzu horretarako aukera. Matematikekin zerikusia duen edozein webgunera joateko loturak ditu. Ariketak, buruketak, logika eta beste hainbat gauza lantzeko laguntza emango dizu. Gainera, matematikan aritzea gustukuagoa egingo dizun orrialde ezberdinak erakutsiko dizkizu. Hizkuntza aldetik, bestalde, euskeraz, gaztelera eta ingelesez eginak dauden webguneen loturak aipatzen ditu. Beraz, ez izan zalantzarik. Matematikaren gainean zerbait jakin nahi izanez gero, jo web orrialde honetara, bertan aurkituko baituzu bilatzen duzun erantzuna!



erreportajea



Aratoste goiztiarrak


Aurten inoiz baino lehenago iritsi dira Aratosteak. Indio, bakero, pirata, pailazo eta printzesa ugari ibiliko da kalean egun horietan, herria kolore eta alaitasunez betez. Ikastetxeek ere hainbat ekintza antolatu dituzten 'Eguen zuri' egunerako eta ikasleek oso ondo pasatzeko aukera izango dute!

Aurten ez da otsailera arte itxaron behar izango Aratosteak ospatzeko. Izan ere, urtarrilaren azken eguna, 31a, 'Eguen Zuria' izango da, Aratosten hasiera zehazten duen eguna.

Urtero ohikoa den bezala, Juan Antonio Mogel ikastola-koek kalejira egingo dute Eibarko kaleetan zehar, 15.30etan Untzagan hasita. Euskal Aratosteak dira, urtero bezala, euren koko-jantzien

gaia. Horrela, 'Ttuntturro', 'Txatxo', 'Katximorro' eta 'Inudeak' ikusi ahal izango dira kaleetan zehar.

Aldatzekoek, bestalde, euren ikastetxean ospatuko dituzte Aratosteak. Ume guztiak koko jantzita joango badira ere, libre dira nahi duten koko-jantzia jantzeko. Horrela, 'Eguen Zuria' arratsaldean txikienek desfile eta jolasak egingo dituzte. Nagusiek, berriz, maskara lehiaketa bat egiteko aukera izango dute.





Arrateko Andra Mari ikastetxeak Hollywooden antza hartuko du 'Eguen Zuria' egunean, izan ere, bertako ikasleek filme ezberdinetako protagonisten jantziak jantziko dituzte. Gainera, Urkin zehar kalejira egingo dute hainbat dantza interpretatuz.

Zirko bi herrian

Zirko bi izango dira herrian Aratosteetan. Izan ere, Urkizu eta San Andres eskolakoek aukeratu duten gaia zirkoa da. Lehenengoek kalejira bat egingo dute egunean Urkizuko parkera arte eta bertan dantza batzuk egiteko asmoa daukate. Bigarrengeok, bestalde, euren eskolan ospatuko dituzte Aratosteak. Horretarako, desfile eta ekitaldi bana eskeiniko dituzte. Bukatzeko, txokolate-jana egongo da denontzat.

Amañan, nahiz eta itsasorik ez egon, piratak izango dira protagonista. Bertako ikasleek


kalejira egingo dute auzoan zehar eta hainbat kanta dituzte giroa alaitzeko. Behin kalejira bukatuta, txokolate-jana izango dute eskolan.

La Sallekoek pijamarekin egingo dute aurten urtero ohikoa den kalejira 'Eguen Zuria' egunaren arratsaldean, 15.00ak aldera. 'Amets goxoa' izenburupean, ikastetxe honetako ikasleak ohera joango balira bezala ibiliko dira Eibarko kaleetan zehar.

Kolorea eta jaia, beraz, gure herrian!



ZER ESKATU DIOZU URTE BERRIARI?



**ENDIKA
GARCIA.**

7 urte

Niri gustatuko
litzaidake
bizikletan gehiago
ibili ahal izatea.
Horrela, mendiren
batera joatea
gustatuko
litzaidake,
Arratera adibidez.



**UANESA
GARMENDIA.**

7 urte

Niri gustatuko
litzaidake
Madrilera irteera
bat egitea, etxeko
lan gutxiago
izatea eta
bizikletarekin
Amañatik
Urkizuraino joan
ahal izatea.

2007a atzian laga eta 2008an sartu gara. Proposamenak, nahixak, desiuak... bako txak gauza bat eskatu detza urte barrixari. Eta zuk, zer?



MIKEL PEREZ DE OBANOS.

7urte

Urte berri honi eskatu diot Game Boyan gehiago jolastea, eta horrez gain, bizikleta hartu eta gehiago ibiltzea ere nahiko nuke.



MIREN BASTIDA.

7 urte

Nik mendira gehiago joatea nahi dut, oraindik ez bainaiz joan! Game Boya etxean edukitzea nahiko nuke eta lagunekin parkean egotea ere.

MULTIKIROLAK

L aukote honek foballa du kirol gustukoena. Gainera, taldeka aritzea nahiago dutela aitortzen dute, denon artean lagundu eta animatzea kirola egiteko era onena delako. Horrela, multikiroletan apuntatzeko deia egiten dute.

-Zein kirol ari zarete egiten?

(Denok): Foballa.

-Gustuko duzue?

Juan: Bai, bai.

-Orain arte zein kirol egin duzue?

(Denok): Atletismoa, judoa eta eskubaloia.

-Zein gustatu zaizue gehien?

Andres: Ba foballa, gehien gustatzen zaidana foballa da.

Kepa: Bai, niri ere,

defentsa moduan aritzea da gustatzen zaidana gainera.

Gorka: Niri foballa baita ere. Aurrelari moduan ondo nabil.

Diego: Niri ere foballa gustatzen zait gehien, aurrelari izatea dut gustuko.

-Zein ez zaizue

asko gustatu?

Diego: Niri judoa. Ez dut borrokan egitea oso gustuko.

Gorka: Judoa baita ere, gogorra dela iruditzen zaidalako eta lurrera erortzean mina hartzen dudalako.

Andres: Niri ere judoa..





Diego Arrillaga, Gorka Martinez-Lagos, Andres Boza eta Kepa Garcia-Anton: "KIROLA EGINEZ ONDO PASATZEN DUGU"

Kepa: Ez dut gogoko borrokan egitea, judoa da gutxien gustatu zaidana.

-Bakarkako kirolak edo taldekakoak dituzue nahiago?

(Denok): Taldekako kirolak.

Andres: Horrela, batek huts egiten badu

beste bat egongo delako ondoan laguntzeko.

Gorka: Gainera, lagunekin egoteko aukera duzu.

Diego: Neskekin batera jolasteko aukera ere daukagu.

-Jendea animatuko zenuke multikiroletan

apuntatzeko?

Kepa: Bai, noski. Oso ondo dagoen gauza bat da eta, gainera, ona da osasunarentzat.

Diego: Oso ondo dago eta jendea apuntatzera animatuko nuke, noski.

Andres: Ondo pasatzeko aukera ona da multikiroletan aritzea.
Gorka: Ondo pasatzen dugulako kirola egiten dugunean.





Foballari eibartarrak Superligako txapelduna denaren atea defendatzen du. Aurten ere txapelketa irabaztea dago bere buruan eta horretarako lanean daude. Eibartarrak foballean punta-puntan dauden erakusgarri da Maria.

- Noiz hasi zinen foballean jokatzeko?

12 bat urterekin. Iturburun foball 7-ko talde bat geneukan eta han hasi nintzen.

- Foballean egiteko leku bat?

Oso gustuko dut Mutrikuko foball zelaia.

- Foballari gustokoena?

Lionel Messi.

- Janaririk gustokoena?

Amamaren porru-patatak asko gustatzen zaizkit.

- Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Bruselasko azak.

- Oporretara joateko leku bat?

Eslovenia.

- Itsasoa ala mendia?

Mendia.

- Atsedean hartzeko leku bat?

Baso bakartiren batean dagoen edozein.

- Ikusi duzun azken filma?

Match Point.

- Irakurri duzun azken liburua?

"Angeles y demonios."

- Erosi duzun azken diskoa?

Uf, aspaldi ez dudala diskorik erosi. Oparitu didaten azkena Sutagar-en DVD-a izan da.

- Umetan egindako

bihurrikeria bat?

Urez betetako globo handi bat (50



pezetako) bota genion Urkizuko parkean kotxea margotzen zegoen bati.

- Zeini emango zenioke muxu bat?

Zea Mayseko kideren bati.

-Eta zeini ostikoa?

Espainiako Gobernuko politikari bati baino gehiago.

-Gustoko duzun abesti bat?

'Grabitatearen aurka', Zea Mays.

-Abeslari edo musika talde bat?

Bloc Party.

-Umetako oroitzapen goxo bat?

Iturburun pasa nituen urteen oroitzapen oso goxoa daukat.

-Mutil izen bat?

Gorka.

-Neska izen bat?

Irati.

-Gustokoa duzun kolore bat?

Gorria.

-Ligatzeko lehen pausoak norka eman beharko luke?

Ligatzeko gogo gehien duenak.

-Lehenengo muxua zenbat



urterekin eman zenuen?

12 urterekin gutxigorabehera.

-Miresten duzun pertsona bat?

Josune Bereziartu.

-Marrazki bizidun gustukoena?

Dragoi Bola.

-Telebista saio bat?

Mihiluze eta House.

-Amets bat?

Egunen batean San Mamesen jokatzea.

-Opariak egitea alla jasotzea nahago?

Jasotzea opariak egite asko pentsatzeko behar delako.

-Animali gustukoena?

Tigrea.

MUGIKORRA

Zuk egindako animalia edo pertsonak nola mugitzen diren ikusi nahi duzu? Proba ezazu eskulan hau, ez da geldirik egongo!

PAUSOAK:

- 1- Marraztu 4 edo 5 figura kartulina batean eta moztu itzazu.
- 2- Figurak koloreetako margoekin marraztu itzazu nahi duzun moduan edo, nahi izanez gero, itsatsi iezaiezu aldizkarietako zaharretako zatiak edo koloreetako paperak.
- 3- Zulotxo bat egiozu goiko aldean.
- 4- 4 edo 5 artile zati moztu (daukazu figura kopuruaren arabera); hauen neurriak 15 eta 25 zm artean egon behar dira.
- 5- Artilearen mutur bat figuren zulotxoetatik pasatu eta beste muturra makilean edo arropa eskegitekoan lotu.
- 6- 'Mugikorra' nahi duzun lekuan kokatu dezakezu!




AHOLKUAK:

1- -Gustuko dituzun figurak egin: animaliak, pertsonak... Eta gustukoen dituzun koloreekin marraztu itzazu.

2- Lehioan kokatuta, haizearekin, 'mugikorrak' mugimendu handia izan dezake.

3- Zure gela apaintzeko erabil dezakezu, beraz, kontu handiz egin behar duzu lana.

4- Etxean ume txikiren bat egonez gero, apaingarri ezin hobea izango da, ume txikiei asko gustatzen baitzaizkie horrelako gauzak.



MATERIALA:

-30 zm-ko makila (arropa eskegitekoa ere erbaili daiteke).

-Artile piska bat.

-Kartulina.


-Aldizkari zaharrak edo koloretako pape-rak.

-Guraizeak.

-Kola.

JIMMY POTXOLO

GURE HERRIAN BADA GIZON BAT GALTZA ETA TXAPELA URDINEZ JANTZITA IBILTZEN DENA. HERRIKO JENDEAREN ALAITASUNA ZAINTEZA DA BERE LANA ETA IRRI ZANTZAILEA HOTSEGITEN DIOTE. EZ DU LAN HANDIRIK IZATEN... NAHIZ ETA DUELA GUTXI KOKOTERAINO EGON LANEZ. LAPURETAK HASI ZIRENEAN PILATU ZITZAION LANA. NOR OTE DA LAPUR GOZOZALEA? NOR IRRI ZAINZTAILEARI LAN HANDIA EGINARAZIKO DIONA?



JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAN

BELLE, LANDETAKO SIRENA


KOLDO ETA ITZIAR LANDETARA DOAZ GURASOEKIN UDAKO OPORRAK PASATZERA. OPOR LABURRAK IZANGO DIRA, PASA DEN IKASTURTEAN EZ BAITIRA OSO FIN IBILI ETA KALABAZA BAT EDO BESTE ERE EKARRI BAITUTE ETXERA. LANDETAN BELLE EZAGUTUKO DUTE. BELLEK ISTORIO HARRIGARRIAK KONTATUKO DIZKIE, BAI ETA SEKRETUREN BAT EDO BESTE ERE. BELLERI ENTZUNDAKO ISTORIOEK ETA SEKRETUEK ZEHARO ALDATUKO DUTE GURE BI LAGUNTZOEN BIZITZA.



SALOMONDARRAK

ASPALDI BATEN, BAZEN HERRI BAT, GEHIENTSUENAK BEZALAKOA: JAUNTZOEN MENDE BIZI ZENA. ETA JAUNTZOAK SALOMON ZEUKAN IZENA: SALOMON JAUNA; BERE AITAK, ETA AITAREN AITAK, ETA AITAREN AITITAK BERDIN. ASPALDITIK AGINTZEN ZUTEN SALOMONDARREK HERRI HAUETAN, EUREN AHOLKULARI ETA GUZTI. HORRELA ZIRUDIEN, BEHINTZAT. BAINA USTE BAINO MARADIKAZIO HANDIAGOAK LOTZEN ETA ITOTZEN ZUTEN HERRI HORI ASPALDIDANIK.





AZUR & ASMAR

AZUR HORAILA DA, ETA BEGI URDINAK DITU. ASMAR BELTZARANA DA, ETA BELTZAK DITU BEGIAK. UMETAN, ANAIK BALIRA BEZALA MAITE DUTE ELKAR, ETA BORROKAN ERE HALAXE IBILTZEN DIRA. HELDUAROAN, HELBURU BERAREN BILA DABILTZALA, BERRIZ ERE ELKARREKIN TOPO EGIN ETA AURKARI BIHURTUKO DIRA; IZAN ERE, DJINN-EN MAITAGARRIA ASKATU ETA HAREKIN BETIKO ZORIONTSU IZATEKO AMTESA BESTERIK EZ DUTE IZAN BIEK BURUAN, TXIKI-TXIKITATIK.



PERUTXO ETA JENTILA

EIBARKO LIBURUDENDETAN SALGAI

EUSKAL HERRIA, BERE HISTORIA LUZEAN ZEHAR, EUSKALDUN IZAN ETA EUSKARAZ BIZI AHAL IZATEKO, BESTEAK BESTE, ZUHURTASUNEAN OINARRITU DA. IPUINTXO, ESAUNDA ETA MITOZ BETERIKO LIBURU HONETAN ERE, ZUHURTASUNA IZANGO DA NAGUSI PERUTXOK JENTIL GAIZTOARI IRABAZTEKO. BIDE BATEZ, EUSKARAZ BIZI, EDER ETA ABERATSA LAGUN DUZULA, EUSKALDUNON URTEETAKO KULTURA SUSTRAITUAN SARTUKO ZARA.



OZ-EKO AZTIA

ZURE BAITAN DAGO! ZUREA DA! HORIXE! BARRU-BARRUAN DUZUN HORI! BAI! ETA ORAINDIK EZ DUZU EZAGUTZEN? LASAI, BATZUTAN DENOK BEHAR DUGU IKUSTEN LAGUNDUKO DIGUN SORGIN EDO AZTIA. EZ ZARA BAKARRA IZANGO, BAINA LASAI, AZTIAK EZ DIZU BAKARRIK UTZIKO-ETA, ZUREKIN EGONGO DA BETI, ZURE ALBOAN, BEHAR FUZUN MOMENTUAN.



BERTSOTAN

BERTSOZALE ELKARTEAREKIN ELKARLANEAN, BERTSOTAN ATALEAN BERTSOGINTZA LANDUKO DUGU ZUEN LAGUNTZAREKIN.

LAN ETA JOKOAK ERABILITA, BERTSOAK, KOPLAK ETA ABAR NOLA EGITEN DIREN IKASTEKO AUKERA IZANGO DUZUE...

HILABETE HONETAN, JOKO BEREZIA PRESTATU DUGU ZUENDAKO:

ONDORENGO KOPLA ETA ZORTZIKO TXIKIKO BERTSO HAUEK OSATU BEHARKO DITUZUE. HORRETARAKO , BATEAN, KOPLA BAKOIZEKO BI OINEK ERRIMATU EGIN BEHAR DUTE ETA BESTEAN BIGARREN LERROA AURKITU BEHARKO DUZUE!

OIN EZKUTUAK

- 1.-Ondorengo herrian dabiltaza kotxe eta kamioi..... era honetan ezingo dugu denbora luzean.....
- 2.-Jolaserako ez da lekurik gure herriko..... udaletxera protetatzera bagoaz oraintxe.....
- 3.-Jolastokiak eta parkeak hori da guk nahi kotxe artean zergatik pasa behar dugu guk
- 4.-Zarata eta kea ez dira oso lagun..... gora belardi berdeak eta oinezko.....

Bekokia
 Egokiak
 Odolkiak
 Ibiltokiak
 Segi
 Begi
 Gehiegi
 Laguna
 Eguna
 Ezaguna
 Kaleetan
 Duguna
 Bertan
 Zaiguna
 Honetan neri
 Benetan

LERRO ERRIMADUNAK

* Doinua: Maritxu nora zoaz.

1.-Elurra omen dugu

.....
eski zaleentzako
.....
natura gozatzeko
.....
artzai gehientzako
.....

-gauza dotorea
-badu balorea
-txarra da ordea
-neguko lorea

2.-Grazia berezia du

.....
dotoretzen bait ditu
.....
jendeak kentzen ditu
.....
nahiz eta batzuetan
.....





-puskatu hezurak
-mendiko gailurrak
-neguko elurrak
-barruko beldurrak

3.-neguak ere dakar

.....
eta jendeak horri
.....
zenbat lanpostu eta
.....
dago gaur egun
.....

-elurra medio
-zenbat negozio
-hainbat ondorio
-fin jarraitzen dio

Parina Paperi Pazzo



MAIOA 2008ko APRIL 4. MAILA
2007-2008

